



*Elkartuta zenbait lagun
euskaraz gogotsu jardun
giro onean kantari denok
ohiturak gorde ditzagun*

*Abestea da polita
ahotsak dira musika
gozatzea da gure helburu
euskara txanpan jarrita*



Zumaiako Udala

Euskara Zerbitzua
943865025

euskara@zumaiakoudala.net

euskaratxanpan@zumaiakoudala.net

*euskar
txanpan*

**Eskerrak Euskararen Aholku
Batzordeari**

AURKIBIDEA

01. AGUR ZUBEROA
02. AI TTURUKU TTUKUTTU
03. AITORREN HIZKUNTZ ZAHARRA
04. ALDAPEKO
05. AMAK EZKONDU NINDUEN
06. ANTONI ETA ANTON
07. ASTOARENA
08. BAGARE
09. BATASUNA
10. BEGI AK PARREZ-PARREZ
11. BIZKAIA MAITE
12. BOGA-BOGA
13. DONOSTIAKO HIRU DAMATXO
14. EGUN DA SANTI MAMIÑA
15. ELURRA TEILATUAN
16. EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ
17. EZ DIZUT IREKIKO/JERONIMO
18. GAZTE-GAZTETATIKAN
19. GIZON TONTUAK
20. GOIZIAN SARTU
21. GURE HERRI MAITEA
22. GURE KOADRILLAN
23. HAIZE HEGOA
24. HEMEN ZUMAIA
25. IKUSI MENDIZALEAK
26. IPARRAGIRRE ABILA DELA
27. ITSASOA LAINO DAGO
28. ITSASOAN URAK HAUNDI DIRE
29. ITSASONTZI BATEN
30. ITURENGO AROTZA
31. ITZIARREN SEMEA
32. IXIL-IXILIK DAGO
33. JOXE MIGELEN BATELA
34. KONTRAPAS
35. LEKEITIOKO KALEAN
36. LOREAK UDAN
37. MAITIAK GALDE EGIN ZAUTAN
38. MENDIAN GORA HARITZA
39. NIK ZURI, ZUK NERI
40. PASIATZEN
41. SALAMANKARA
42. SAN SIMON ETA SAN JUDA
43. SANTANA ZAHARRA
44. TRISTE BIZI NAIZ ETA
45. TXALUPA TXIKI HONETAN
46. TXANTXIBIRI
47. TXORIA TXORI
48. UDABERRIAN
49. UME EDER BAT
50. XALBADORREN HERIOTZEAN

1. AGUR ZUBEROA

Agur Zuberoa,
bazter guztietako txokorik ederrena!
Agur Atarratze,
zurekin ditut ametserik goxoenak,
bihotzaren erditik
bortzetan jalki ditadazut hasperena:
zu utzi geroztik
bizi naiz tristerik,
abandonaturik.

Ez baita herririk
Paris ez besterik
zu bezalakorik.

Sorlekua utzirik, gazte nintzelarik
Parisen sartu nintzan korajez beterik.
Plazerez gose eta buruan harturik
behar nuela alegere bizi...
Bortzetan geroztik
nigar egiten dit
Zuberoagatik.

2. AI TTURRUKU TTUKUTTUTTU

Ai tturruku ttukuttu
ez neri ikutu
aita ganbaran da ta
sentituko gaitu
Aita ganbaran eta
ama sukaldean
neska-mutilak berriz
eskailera azpian

Ez zuela nahi, ez zuela nahi
atian atzian ez zuela nahi,
ganbaran bai, ganbaran bai (bis)

Saltsa berdia
date la buelta maria (bis)

Ematekotan, ematekotan
emateko, emateko, ematekotan

Ordu bietan kandilakin
kontuz ibili zakilakin

Ematekotan...

Ordu bietan kandilik gabe
jo zak larrua kupirik gabe

Ematekotan...

Goiko kaleko Xixilik
harek ematen du ixilik
beheko kaleko Tomasak
harek ematen du demasa

Ematekotan...

3. AITORREN HIZKUNTZ ZAHARRA

Aitorren hizkuntz zaharra
nahi degu zabaldu
munduaren aurrean
gizonki azaldu:
baldin gure zainetan
odolik badegu,
euskaldunak euskaraz
hitz egin behar degu.

Zein hizkuntza ederra
euskara guria!
inon ez det aurkitzen
beste bat hobia.
Usain goxodun hizkuntz
txukun ta argia,
biraorikan ez duen
hizkera garbia.

Etsaiak aurka dabiltz
euskararengatik
lehen, orain eta beti,
guztiz aspalditik,
lurperatu nahirikan
antzina-antzinatik
ez dute hori lortuko,
inungo aldetik.

Euskera galdutzeko
ez dago beldurrik,
munduan ez da sortu
hortako indarrik.
Sasi jakintsu asko
dabiltz galdu nahirik
asmo txar hoiek guztiak
dirade alperrik.

Gora euskera maitea
zoragarriena,
euskaldunen artean
maitagarriena.
Munduan sortu zanik
hizkuntza zaharrena,
gora ta gora euskaldunak
Euskadi ta euskera.

4. ALDAPEKO

Aldapeko sagarraren
adarraren puntan
puntaren puntan
txoria zegoen kantari.

Xiru-liruli, xiru-liruli,
nork dantzatuko ote du
soinutxo hori?

5. AMAK EZKONDU NINDUEN

Amak ezkondu ninduen
hamabost urtekin, (batek)
hamabost urtekin (denek)
Senarrak bazituen
laurogei berekin
ta ni, neskatila gaztea
agure zaharrakin, (batek)
agure zaharrakin (denek)

Ama zertarako det nik
agure zahar hori, (batek)
agure zahar hori (denek)
hartu ta leihotikan
jaurti behar det nik
ai ene! nere leihotikan
jaurti behar det nik, (batek)
jaurti behar det nik. (denek)

Neska hago isilikan
aberatsa den hori, (batek)
aberatsa den hori! (denek)
Pazientziz pasa itzan
urte bat edo bi;
hori hilez geroztikan
biziko haiz ongi, (batek)
biziko haiz ongi! (denek)

Deabruak daramala
interesatua, (batek)
interesatua. (denek)
Hau baina nahiago nik
adin berekua.
ai ene! hogeit bat urteko
gazte loratua, (batek)
gazte loratua. (denek)

6. ANTTONI ETA ANTTON

Anttoni, Anttoni!
zure atean nago ni
Ai Antton, ai Antton!
ate onduan hor konpon.

Hormatxoriak negu gorrian
ez du atsegin elurra
zerua goibel, kabia hotza,
ta janari gabe lurra.
Ai maite nere bihotzak duen
zure hotzaren bildurra!
biontzat kabi bat berotzeko
bilduko nuke egurra.

Anttoni, Anttoni...

Enarak ez du behin egindako
kabirik inoiz aldatzen
urtero beti kabi haretan
umeak ditu bazkatzen.
Baina zu, Antton enara txarra
zaitut neretzat bilatzen:
jai bakoitzean neska berria
ikusten zaitut maitatzen.

Anttoni, Anttoni...

Enarak ere, bere kabia
galduta badu ikusten,
biderik gabe, haruntz ta honuntz
kabitik du aldegiten.
Egarri dagon nere bihotza
zuk eman ezik edaten
berriro ere ibiliko da
gogorik gabe nunbaiten.

Anttoni, Anttoni...

Zure bihotza egarri dala
esan didazu bertsotan:
neronek ere ikasi det
arrazoi dezula hortan.
Zu beti zabiltz edari bila,
ikusi zaitut askotan
baina neurritz gain, egarri hori
itotzen dezu ardotan.

Anttoni, Anttoni, kalabazale ez naiz ni!

Ai Antton! Ai Antton! haize preskuari
gabon!!

7. ASTOARENA

Ikusirik pasatzen
astuak ugari
aita batek algaraz
dio semeari:

Begirakiok Pello
heure anaiari (bis)

Semeak erantzun du
berehaaala (bis)

Hoiek neure anaiak
ez nuen nik uste
ez nuen nik uste
berorrek zituenik
horrenbeste seme
horrenbeste seme (bis)

Seme, seme
Seme!

8. BAGARE

Araban bagare,
Gipuzkun bagera,
Ziberun bagire
ta Bizkaian bagara (bis)

Guztiok gara euskaldun
guztiok anaiak gara
nahiz eta hitz ezberdinez
bat bera dugu hizkera (bis)

Herri bat dugu osatzen
eta gure zabarkeriz
ez daigun utzi hondatzen

Bagare, bagera,
bagire, bagara,
Euskadi askatzeko
oraintxe dugu aukera.

Bagare, bagera...

9. BATASUNA

Aupa gizona, jeiki mutil
atzar emazte ta neskatil!
Borrokarako dei eginaz
irrintzi bat dabil!
Euskal Herria diagu zain,
presoak eta hilak ere bai!
abertzale izan ezkeru gaur
gauden denok anai!

Borrokari luza zaidak eskua!
huna hemen nirea zabalik!
Euskaldunok banan-banan hiltzea
otso beltzak ez dik beste nahirik!
Euskadiren alde
loturik bagare,
goaz borrokara!
nagusituko bait gare!
Gerokoak geroko utzi!
gaur herriak zio:
nahi diat bizi!

Aupa gizona...

Otso beltza gauaren gauaz heldu,
artzainak zebiltzala kalakan...
goizean goiz odolez gorrituak
hamaika ardi hilak belarditan.
Artzai kalakari,
atsoak iduri,
har makila eskuan
eta lotu etsaiari!
Anaien aurka ez habila!
Otso beltzarentzat atxik makila!

Aupa gizona...

Agur, agur! andere askatasuna!
Agur, agur! biharko Euskadi!
Iguzkitan dantzatuko gaituzu!
errana diot maiteñoari!
Besoak loturik
ez dugu pestarik
nola dantzatuko
biok belaunikaturik?
Lehenik urratu katea
gero libro izanen dantza egitea.

Aupa gizona...

10. BEGIAK PARREZ-PARREZ

Ez dago larrosarik
arantzarik gabe
ez eta ere amodiorik
zelorikan gabe

Begiak parrez-parrez
bihotza negarrez
halaxe joaten nintzan maitia
zugandik dolorez

Ama zuriak neri,
parian pasata
ez dit agurrik egin maitia
burua jirata

Ama zuriak neri
ez agur eiteko
zer palaziyo dauka maitia
zuri emateko

Palazio eder bat
haitzaren gañian
ez da haizerik sartzen maitia
ez dabilenian
ez da euririk sartzen maitia
ateri denian

11.BIZKAIA MAITE

Bizkaia maite,
atzo goizean ikusi zintudan
soineko xuriz jantzita
buruan orlegi, bihotzean sua
lirain, sendo, eder
nere gogoaren ertzatik pasatzen
zure usain gozoa
lana, amodioa, itsasoa
nere baitan sartzen.

Atzo goizean entzun nuen
zure berbaren oihartzuna
zure kantaren fereka,
bihotzean kilika
eta oihartzunaren handitasunean
murgilduz joan nintzen jauzika, hegaka.

Bart arratsean,
arbasoen baratzaren ondoan
bertsotan eta dantzan
lotu zinen alai,
piper eta gatza,
sabel emankorra.

Bizkaia maite,
atzo goizean ikusi zintudan
soineko xuriz jantzia,
buruan orlegi, bihotzean sua
olerkari penatuaren
gozo eta mina
amodioa eta kanta
zure berba leun
zure gatzaren bizia
zure burdinaren gorria
dira gaur neretzat
aterbe.

12.BOGA-BOGA

Boga, boga
marinela, marinela
joan behar degu
urrutira, urrutira
bai Indietara, bai Indietara.

Ez det, ez det, ez det,
nik ikusiko
zure kai ederra, kai ederra

Agur, agur, agur,
Ondarroako
itsas itsaso bazterra,
itsas itsaso bazterra.

Marinela,
marinela,
boga!
Marinela.

13.DONOSTIAKO HIRU DAMATXO

Donostiako hiru damatxo
Erreterian dendari! (bis)
josten ere badakite baña
ardua edaten hobeki;
eta kriskitin kraskitin
larrosa krabelin,
ardoa edaten hobeki.

Donostiako hiru damatxok
hirurak gona gorriak
Sartutzen dira tabernara ta
irtetzen dira ordiak
eta kriskitin kraskitin
larrosa krabelin,
irtetzen dira ordiak.

Donostiako gaztelupeko
sagarduaren goxua
hantxe edaten ari nintzala
hautsi zitzaidan basua
eta kriskitin kraskitin
larrosa krabelin,
basua kristalezkoa.

Donostiako neskatxatxuak
kalera nahi dutenian:
-ama piperrik ez dago eta
banoa salto batian;
eta kriskitin kraskitin
larrosa krabelin
banua salto batian

14. EGUN DA SANTI MAMIÑA

Egun da Santi Mamiña
benetan egun samina
goiko zeruan gorde dezala
luzaro neure arima.

Esanen dizut egia
hau ez da usategia;
erroi artean izan nintzaden
benetan ausartegia.

Egun da Santi...

Itsas aldean izarra,
hari begira lizarra;
euskara salbu ikusi arte
ez dut kenduko bizarra

Egun da Santi...

15. ELURRA TEILATUAN

Elurra teilatuan
zakua lepuan
ibili beharko degu
aurtengo neguan. (bis)

Rau!
rau, rau, rau, rapataplau!

Hau dek umoria!
utzi alde batera
euskaldun jendia. (bis)

16. EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

Euskal Herrian euskaraz
nahi dugu hitz eta jolas
lan eta bizi euskaraz eta
hortara goaz,
bada garaia, noizbait dezagun
guda hori gal edo irabaz.
Zabal bideak eta aireak
gure hizkuntzak har dezan arnas,
bada garaia noizbait dezagun
guda hori gal edo irabaz.

Euskal Herrian euskara
hitz egiterik ez bada
bota dezagun demokrazia
zerri askara;
geure arima hiltzen uzteko
bezain odolgalduak ez gara.
Hizkuntza gabe esaidazue
nola irtengo naizen plazara,
geure arima hiltzen uzteko
bezain odolgalduak ez gara.

Euskal Herri euskalduna
irabazteko eguna,
pazientzia erre aurretik
behar duguna;
ez al dakizu euskara dela
euskaldun egiten gaituena?
Zer Euskal Herri litzake bere
hizkuntza ere galtzen duena.
Ez al dakizu euskara dela
euskaldun egiten gaituena?

17. EZ DIZUT IREKIKO/JERONIMO

Ez dizut irekiko
gau ilunian aterik
barrengoak ez daki
kanpokoaren berririk.
Zatoz eguna argitzen danian,
egongo gera alkarrekin.

Ai, ene! Ai, ene! Hogeita laugarrena
San Bartolome (bis)

Jeronimo, entzun zazu
neskatxarekin ibiltzen zera zu (bis)

Aita datorrenian, ama datorrenian
etxetik kanpora bidaliko zaitu (bis)

18. GAZTE-GAZTETATIKAN

Gazte-gaztetatikan
herritik kanpora
estranjeri aldean
pasa det denbora.

Herrialde guztietan
toki onak badira
bainan bihotzak dio:
zoaz Euskal Herrira.

Lur maitea uztea
da negargarria.
Hemen gelditzen dira
Ama ta herria
urez noa ikustera
bai mundu berria;
oraintxe bai naizela
errukigarria.

Agur nere bihotzeko
amatxo maitea
laister itzuliko naiz
kontsola zaitea
Jaungoikoak nahi badu
ni urez joatea;
Ama, zertarako da
negar egitea?

19. GIZON TONTUAK

Itsasotikan gatozenian
arrai barik etxera
andre zaharrak bidaltzen gaitu
afaldu gabe ohera.
Ohera joan da popia emon,
hau da betiko kontua!
Halako andrakin ezkontzen dana
ez da makala tontua.

20. GOIZIAN SARTU

Goizian sartu tabernara eta
ateratzen naiz azkena
egun guztian zurrutian da
ez zait betetzen barrera

Ai hau erari xoragarria
neri gustatzen zaidana
Maria Jesus bihotzekua
bete hamaseigarrena.

21. GURE HERRI MAITEA

Gure herri maitea alegratu, bai, jendia
bixiguak ez du eman aurtengo urtian.
lalaralaralala
Antxoak emango du etortzen danian
irabaziko degu aukera danian.

Askatasuna eskatzen diogu
herri hontako alkate jaunari
eta jendia alegratzearren
gu gerade herri hontara etorri.

Mutil gaztiak egonagatik
Ondarruako neska gaztiak
ez diralako ondo pintatzen,
ondo garbitu ta gero ere
ez dala erraza izango
denak ezagutzen.

Udaberrian txoriak
alegre egoten diran moduan
gu ere alegre gatoz
triste egonagatik neguan. (batek)

Gure herri maitea...

22. GURE KOADRILLAN

Gure koadrillan, gure koadrillan
gure koadrillan mozkorra franko
eta gainera soltero

Eta gainera, eta gainera,
eta gainera ezkontzerikan
ez du inork espero
ez orain eta ez gero

Hau dek zorioneko
ezkondu biharra
ezkondu baino lehenago
biziko naiz mutlizaharra

23. HAIZE HEGOA

Haize hegoa, gau epela
ilargiaren argi
mutxurdinak leihoetan
teilatuan katu bi
bide ertzian zenbait kanta
gau erdiz arnoari
har gaineke sorgin zaharra
keinuka ilargiari.

24. HEMEN ZUMAI A

Hor Zumaiako sarreran
bi bide elkartzen dira,
Getariz Donostiara
ta Debaz Bilbo aldera.
Industrialde da bera
salerosketako leku,
bere ibai eta portu
trenbidea ere badu

Hona, hona, hona
hemen, hona hemen
ondo begira
guztia, den guztia
bere txikian, bere txikian
Donostia

Badu bere parrokia
ta badu Andre Maria
eta san telmo ermita
itsastarren zaindaria.
hor du bere kofradia
San Joseren elkartea
mediko ta gaixozainen
langintza ondo betea.

25. IKUSI MENDIZALEAK

Ikusi mendizaleak
baso eta zelaiak,
mendi tontor gainera
igo behar dugu.
Ez nekeak, ezta bide txarrak
ta gora, gora Euskal Herria.
Gu euskaldunak gara
Euskal Herrikoak.

Hemen mendi tontorrean
euskal lurren artean
begiak zabaldurik
bihotza erreta.
Hain ederra, hain polita da,
ta gora, gora, Euskal Herria.
Gu euskaldunak gara
Euskal Herrikoak.

26. IPARRAGIRRE ABILA DELA

Iparragirre abila dela
askori diot aditzen,
eskola ona eta musika,
hori horiekin zerbitzen.
Ni ez nauzu ibiltzen,
kantuz dirua biltzen,
komeriante moduan,
debalde festa preparatzen det
gogua dedan orduan (Bis)

Eskola ona eta musika
bertsolaria gainera,
gu ere zerbait izango gera
hola hornitzen bagera.
Hatoz gure kalera,
baserritar legera,
musika hoiek utzita;
Errenterian bizi naiz eta
egin zaidazu bisita (Bis)

27. ITSASOA LAINO DAGO

Itsasoa laino dago
Baionako barraraino
nik zu zaitut maiteago
txoriak bere umeak baino

Nik zu zaitut maiteago
arrantxuak ura baino

Binbili bonbolo
zein da lo
akerra Frantzian balego.
Akerrak kanta
idiak dantza
ahuntzak danbolina jo

28.ITSASOAK URAK HAUNDI DIRE

Zazpi senideko famili batetan
arotza zen gure aita,
gure herriko alkate ez izan arren
lana egiten zuena.

Itsasoan urak haundi dire
murgildu nahi dutenentzat.
Gure herriko lanak haundi dire
astun dire, gogor dire,
zatiturik daudenentzat.

Markatzen ari diren bide nabarra
ez da izango guretzat
lehengo sokari ezarririk dagoen
oztopo bat besterik.

Itsasoan urak haundi dire...

Hainbeste mendetako gure
morrontzak
baditu mila tankera,
eta zuhur aukeratzen ez badugu
bertan galduko gera.

Itsasoan urak haundi dire...

29.ITSASONTZI BATEN

Itsasontzi baten
Euskal Herritik kanpora
naramate eta ez dakit nora (Bis)

Agur nere ama
laztan goxoari
agur nere maite politari
ez egin negar
etorriko naiz
egunen baten
pozez kantari

Itsasontzi baten
Euskal Herritik kanpora
naramate eta ez dakit nora

Agur senideak
agur lagunari
agur Euskal Herri osoari.
Ez egin negar
etorriko naiz
egunen baten
pozez kantari.

Gora Euskal Herri
Gora Euskal Herri
Gora Euskal Herriari.

30.ITURENGO AROTZA

Iturengo arotza, Erramun Joakin,
Hasarre omen zaude zeren degun jakin,
Santurik ez daiteke fiatu zurekin:
San Kristobal urtuta joariak egin.

Arotzak erran dio bere andreari:
"Urtu behar dinagu; ekarran santu hori".
"Gizona, hago ixilik! bekatu duk hori".
"Etzionagu erranen sekulan inori".

Arotzak erran dio bere andreari:
"Begira zaion ongi, joare multzoari
soinuan bilatu ta denak zeuden ongi
salatu ez bagintu koinatak, Joana Mari".

Kobrezko santurikan inon bazarete,
Egoten al zarete hemendik aparte:
Baldin arotz horiek jakiten badute,
joariak eiteko urtuko zaituzte.

31.ITZIARREN SEMEA

Itziarren semea: hori duk mutila
inor salatu baino nahiago du hila...
Harro egon litake, Mayi neskatila,
espetxetik jali ta joanen zaio bila!
Mayi neskatila, hori dun mutila!
inor salatu baino nahiago du hila!

Haurra zer egin haute holan agertzeko?
Ama, jo egin naute mintza arazteko!
Izenik eman al duk? esan zak egia
Ez ama ez dut eman! jali naiz garbia!
Jali haiz garbia? Bai ama, egia
ta amak eskaini zion krabelin gorria...

Zazpi gizon nituen joka inguruan...
makilaz hartu naute ostikoz lurtean
baina nik ez dut eman lagunuen izenik!
ta hantxen gelditu dira fitsik jakin barik!
Lagunen izenik ez baitut eman nik...
ta hantxen gelditu dira fitsik jakin barik!

Lau aldiz sartu naute urean burua...
zangotik euki naute zintzilikatua...
baina nik ez dut eman lagunuen izenik!
ta hantxen gelditu dira fitsik jakin barik!
Zangotik zintzilik, ni beti ixilik!
ta hantxen gelditu dira fitsik jakin barik.

Izerdia ta odola burutik behera...
ezpainak urratu ta azazkalak atera...
Baina nik ez dut eman lagunuen izenik!
ta hantxen gelditu dira fitsik jakin barik!
Odolez beterik, ni beti ixilik
ta hantxen gelditu dira fitsik jakin barik!

32. IXIL-IXILIK DAGO

Ixil-ixilik dago
kaia barrenian,
ontzi txuri polit bat
uraren gainean. (bis)

Goizeko ordu bietan
esnatutzen gera,
arrantzaliak beti
joateko urrutira. (bis)

Pasatzen naizenian
zure leihopetik
negarra irteten zait
begi bietatik. (bis)

Zergatik, zergatik,
zergatik, zergatik,
zergatik negar egin?
zeruan izarra dago... nondik?
Itsaso aldetik.

Bat, bat, bat, bart parrandan ibili,
bart parandan ibili.
Bi, bi, bi, ez naiz ondo ibili,
ez naiz ondo ibili.
Hiru, hiru, hiru kolkua bete diru,
kolkua bete diru.
Lau, lau, lau, sardina bakalau.

Anteron txamarrotia
Sinkarren bibotia,
haretzek ei dauko, ei dauko
preso tximinoia.

Hau dek, hau dek,
hau dek umoria!
kontsolatzeko,
kontsolatzeko,
euskaldun jendia

Kalian gora, kalian behera,
kalian gora, kalian behera,
kalian gora, kalian behera,
kalian gora zezena! (bis)

33. JOXE MIGELEN BATELA

Joxe Migel,
Migel Joxe,
Joxe Migel,
Migel Joxeren batela,

Joxe Migelen batela,
txitxarrua ta berdela,
Joxe Migelen batela,
txitxarrua ta berdela.

34. KONTRAPAS

Garaziko herria
benedika dadila (bis)
euskarari eman dio
behar duen tornua. (bis)

Euskara, euskara,
ialgi hadi plazara.

Bertze jendek uste zuten
ezin eskriba zaiteien (bis)
orai dute porogatu
enganatu zirela. (bis)

Euskara, euskara,
ialgi hadi kanpora.

Orai dano egon bahiz
inprimitu bagerik (bis)
hi engoitik ebilliren
mundu guzietarik. (bis)

Euskara, euskara,
habil mundu guzira.

35.LEKEITIOKO KALEAN

Lekeitioko kalean
bixigu denbora danian
laran lara. (bis)
Hogei txitxarro eta gehiago
sartzen dituzte sabelean,
bainan guztiak batean.
Laralala laralala laralala.

Hiru lagunek Ispasterren
apustu txiki bat egin zuten.
laran lara (bis)
Jango zutela goizetik gauera
hamar erraldeko txahala
Txanton laugarrengo zala.
Laralala laralala laralala.

Laralaaaaaa
(txistua batek, katxaperoa bezala)
PUM!!

36.LOREAK UDAN

Loreak udan ihintza bezala
maite det dama gazte bat,
hari hainbeste nahi diotanik
ez da munduan beste bat.
Inoiz edo behin pasatzen badet
ikusi gabe aste bat,
bihotz guztira banatutzen zait
halako gauza triste bat.

Neskatxa gazte paregabea
apirileko arrosa,
izarra bezin dizdizaria,
txoria bezain airoa.
Oraintxe baino gusto gehiago
nik ezin nezake goza.
Zorionean ikusten zaitut,
nire bihotzak hau poza!

Nere betiko pentsamendua,
nere kontsolagarria,
zu gabetanik ezin bizi naiz,
esaten dizut egia.
Zu bazinake arbola eta
ni baldin banintz txoria,
nik zu zinaken arbola hartantxe
egingo nuke kabia.

37.MAITIAK GALDE EGIN ZAUTAN

Maitiak galde egin zautan,
polita nintzanez. (bis)
Polit, polit nintzela baina,
larrua beltz, larrua beltz.

Maitiak galde egin zautan
premu nintzanez. (bis)
Premu, premu nintzela baina,
etxerik ez, etxerik ez.

Maitiak galde egin zautan
boltsa banuenentz. (bis)
Boltsa, boltsa banuela baina,
dirurik ez, dirurik ez.

Maitiak galde egin zautan
lana banuenentz. (bis)
Lana, lana banuela baina,
gogorik ez, gogorik ez.

Gaixoa, hil behar dugu,
gu biok gosez. (bis)
Gosez, gosez hil behar baina,
elkar maitez, elkar maitez.

38.MENDIAN GORA HARITZA

Mendian gora haritza
ahuntzak haitzean dabilta
itsasoaren arimak dakar
ur gainean bitsa.
Kantatu nahi dut bizitza
usteltzen ez bazait hitza
mundua dantzan jarriko nuke
jainkua banintza.

Euskal herriko tristura
soineko beltzen jostura
txori negartiz bete da eta
umorez hustu da.
Emaidazue freskura
ura eskutik eskura
izarren salda urdina edanda
bizi naiz gustura.

Euskal Herriko poeta
kanposantuko tronpeta
hil-kanpaiari tiraka eta
hutsari kolpeka.
Argitu ezak kopeta
penak heuretzat gordeta
goizero sortuz bizitza ere
hortxe zegok eta.

Mundua ez da beti jai
inoiz tristea ere bai
baina badira mila motibo
kantatzeko alai
Bestela datozen penai
ez diet surik bota nahi
ni hiltzen naizen gauean behintzat
egizue lo lasai.

39.NIK ZURI ZUK NERI

Mahatsaren orpotik dator
mama goxua
mama goxua
edango neukela
beterik basua, krisk!
beterik basua

Nik zuri, zuk niri
agur eginaz alkarri
basua txit garbi
beharko da ipini.

40.PASIA TZEN

Jose Mari Martiarena
datorrela bere señorakin. (bis)
Taka, taka pasiatzen,
taka, taka, pasiatzen,
Santiotikan barrena
Bonbillo aldera.

41.SALAMANKARA

Gazte-gaztetik aitag ta amak
praile ninduen nonbratu
estudiak ikasitzera
Salamankara bialdu.
Salamankara
nindoalarik
bidean nuen pentsatu
estudiante tunante baino
hobe nuela ezkondu.

Aita Jainkuak egin banindu
zeruetako giltzari
azken orduan jakingo nuke
atera nori ireki.
lehenengo aitari
gero amari
gero anai-arrebari
ta azken orduan, isil-isilik
nire maite politari

42.SAN SIMON ETA SAN JUDA

San Simon eta San Juda
joan zen uda, eta negua heldu da. (bis)
Ez baletor hobe, bizi gara pobre
eremu latz honetan
ez gara hain onak benetan

Ez dugu zaldirik, ez gara zaldunak
Ez dugu abererik, ez gara aberatsak
Euskara guk dugu, gu gara euskaldunak,
euskara guk dugu, gu gara euskaldunak!

43.SANTANA ZAHARRA

Etorriko dek, etorriko dek
etorriko dek Santana zaharra. (bis)

Ez dik balio, badik balio,
riau, riau, misterio.

Riau, riau, riau, riau, riau
badik balio, riau, riau.

44. TRISTE BIZI NAIZ ETA

Triste bizi naiz eta
hilko banintz hobea,
badaukat bihotzian
hainbat atsekabe;
maite bat maitatzen det
baina haren jabe,
sekulan izateko
esperantzik gabe. (bis)

Bihotz baten lekuan
mila banituzke,
zuretzako maitia
izango lirake;
bainan milan lekuan
bat besterik ez det,
hartzazu ba maitia
bat hau mila bider. (bis)

Nere maite polita
nola zera bizi,
zortzi egun hauetan
ez zaitut ikusi;
uste det zabiltzala
nigandik ihesi
ez didazu ematen
atsekabe gutxi.

45. TXALUPA TXIKI HONETAN

Txalupa txiki honetan
horrenbeste lagun
ez dakit ze baje
atera behar degun.
kubiarta legorrik ez
bodega txit ilun,
guretzako gauz onik
ez zegoen inun.

Hauxen da barko berria (batek)
Hauxen da barko berria (denek)
Ondo kostata ekarria (batek)
Ekarria (denek)
Ni naiz kapitan piloto (batek)
Zu zera kapitan piloto (denek)
Neri behar zait obeditu (bis)
Obeditu (denek)

Heltzen badiat krasketan (batek)
Bonbillo Bonbillo behera (denek)
Heltzen badiat nonbaitik (batek)
Bonbillo bat, Bonbillo bi
Bonbillo putzuta erori (denek)

46. TXANTXIBIRI

Txantxibiri, txantxibiri gabiltzarian
Elorrioko kalia
hamalau atso tronpeta jotzen
zazpi astoren gainian.
Astoak ziren txiki-txikiak
atsoak, berriz, kristonak!
Nola demontre konpontzen ziren
zazpi astoren gainian.

Saltzen, saltzen
txakur txiki baten karamelua
"esta muy bien" esaten du konfiteruak.
Cuando vamos a Otxandiano,
Andra Mari egunian, mekaguenlamar!
tomaremos txokolate, sonbreruan gainian.

47. TXORIA TXORI

Hegoak ebaki banizkio
neria izango zen
ez zuen aldegingo (Bis)

Bainan honela
ez zen gehiago txoria izango (Bis)

Eta nik txoria nuen maite,
Eta nik, eta nik, txoria nuen maite.

Trala laralala lala lala
tralara lala lala lala
trala laralala lala lala
tralara lala lala.

48.UDABERRIAN

Udaberrian abiatu nintzen
dama gazte bat bilatzen
atia kox-kox jo nion baina
ez ziraden erantzuten.

Errespuesta eman eta gero
maitia zer nahi zenduke
zure gustua horrela bada
biok lo egingo genduke.

Zure aita tabernan dago
ama berriz sukaldian
hemen ataian egongo gera
hoiek lotara artian.

Atai aldian hotza egiten du
hozkildu egingo gera
nere mantia zabaltzen badet
biok tapatuko gera.

Zuk ere tira nik ere tira
apurtu egingo genduke
nere herrian mantak badaude
berriak diruan truke.

Atia ere tirrikiti-tarra
zakurra berriz zaunkaka
atiarena nik egingo det
zakurrak zeinek ixildu.

Zuk txakur hori ixildutzeko
eper bizia behar du
eper bizia harrapatzeko
mutil mantxua zera zu.

49.UME EDER BAT

Ume eder bat ikusi nuen
Donostiako kalia,
hitz erditxo bat hari esan gabe
hola pasatu parian?
Gorputza zuen liraina eta
oinak zebiltzen aidian,
politagorik ez det ikusi,
nere begien aurrian.

Galai gazteak galdetzen dute:
aingeru hori nun dago?
nere maitea nola deitzen dan
ez du inortxok jakingo;
ez berak ere ez luke nahiko,
konfiantza horretan nago.
Amoriodun bihotz hoberik
Euskal Herrian ez dago.

50.XALBADORREN HERIOTZEAN

Adiskide bat bazen, orotan bihotz bera
poesiaren hegoek sentimentuzko bertsoek
antzaldatzen zutena.

Plazetako kantari, bakardadez josia
hitzen lihoa iruten, bere barnean irauten
oinazez ikasia, ikasia.

Nun hago, zer larretan
Urepeleko artzaia
mendi hegaletan gora
oroitzapen den gerora
ihesetan joan hintzana. (bis)

Hesia urraturik, libratu huen kanta
lotura guztietatik, gorputzaren mugetatik
aske sentitu nahirik.

Azken hatsa huela, bertsozik sakonena,
inoiz esan ezin diren, estalitako egien
oihurik bortitzena.

Nun hago...